

KBabel Euskaraketako KBabel Itzulpengintza tresnaren Tutoretza

Egilea: Iñaki Larrañaga Murgoitio



Gipuzkoako Foru Aldundia
www.gipuzkoa.net



www.euskalgnu.org
Iñaki Larrañaga Murgotio
(dooteo@euskalgnu.org)



www.zundan.com
(dooteo@zundan.com)

Aurkezpena

Sarrera

GNU/Linux sistema eragilean ia programa guztien jatorrizko hizkuntza Inglesa izan ohi da. Programatzaileek ordea, nolabait esatearren, beraiek sortutako programetan beste hainbat hizkuntza erabiltzeko gaitasuna eskeintzen dute, eta ondorioz ordenagailu bakar batetan zenbait erabiltzailek programa hauek bakoitza hobekien aritzen den hizkuntzan erabil ditzake.

Erabiltzaileek nahi duten hizkuntzan erabiltzeko programak hizkuntza horietara itzuli beharra dago. Itzulpen lanak egiteko hainbat tresna daude. Tutoretza honetan itzulpenak nola egiten diren azalduko da, bere oinarria eta zein tresna erakutsiz gain azken hauetariko batetan murgilduko da: KBabel.

Itzulpenak egiteko programatzailea zer izan beharrik ez dago, nahikoa da Inglesa eta itzuli nahi den hizkuntza (Euskara adibidez) jakitea.

Egunen batetan norbaitek GNU/Linux-eko programa bat itzultzeko burutazio bikaina etortzen bazaio (berdin dio parranda baten osteko bixamonarekin badago ere) lehendabizi urrats batzuek eman beharko lituzke:

1. Programaren sortzaileei galdetu ea hau nahi den hizkuntzara itzultzen norbait ari al den.
2. Baiezko erantzunean ziurrenik itzultzailearen (pertsonek edo talde bat izan daiteke) helbide elektronikoa jaso ohi da. Itzultzaileekin harremanetan jarri laguntzarik behar al duten galdetuz.
3. Programa horren itzulpenerako nahiko lagun egonez gero, beste programa baten itzulpena egitea eskertzekoa izango litzateke.
4. Hau itzultzen inor ez bada ari, softlibrea@euskalgnu.org edo itzulpena@euskalgnu.org bezalako zerrendatan laguntza eske mezu bat bidaltzea ere komenigarria da. Horrela, itzulpen lanetan laguntzeko beste norbait ere prest ager daiteke ;)
5. Behin itzulpena egiteko ardura hartzen denean programaren azken garaketaren bertsioa eskuratu.

Aholkua: programaketa arloan ezer ez jakinez gero, komenigarria izango litzateke programaren exekutablea eta jatorrizko kodea ordenagailuan ezartzea. Honela, programaren exekutablea ezarrita dagoela ez dauka beronen konpilaketa¹ lana burutu beharrik. Tutoretza honetan ikusi ahal izango den bezala, behin programa itzulitakoan, ezarrita dagoen programak itzulitakoa erabiltzeko gaitasuna dauka. Miraria gertatu ote? Ez, ez... teknologia besterik ez da.

¹Konpilaketa lana zera izaten da, programaren jatorriko kodetik exekutablara bihurtzea.

6. Programa hori itzulita dagoela, eta bere exekutablean ahal den itzulpen akats gehienak zuzendu ondoren, itzultakoa programaren sortzaileei bidaltzea besterik ez da egin behar. Horrela, edozein erabiltzailek Internet-etik jeitsi eta goxatzeko aukera eskeiniz. Afari bat edo beste ere antola daiteke hau ospatzeko.

Era laburrean azaldu den hau erakutsiko da tutoretza honetan. Gauzak nola antolatzen diren eta abar ikasteko tutoretza hau irakurtzea aholkatzen da. Tutoretza hau ahalik eta irakurterazekoa izatea espero da.

Oharra: Tutoretza honetan agertzen diren zenbait irudi moztuta agertzen dira, zeren eta zabalegiak baitira orrialdeetan sarzeco.

On dagizula!

PO fitxategiak

po eskuratzen

Itzulpena egitea nahi duen batek programa horren jatorrizko kodea jeistea komeni da, nahiz eta gero bertatik pare bat fitxategi besterik ez erabili. Taldeko itzulpen lan bat den egoeran taldekide batek eduki dezake jatorrizko kodea, eta beste taldekideei itzuli nahi diren fitxategiak bana diezaieke.


Adibidez, irudikatu une batez **Udaberria** izeneko programa bat itzultzea nahi dela. Hori dela eta Udaberria programa garatzen duten Internet-eko gunetik jeitsi, bai exekutablea bai jatorrizko kodea.

Erabiltzailearen etxean, bere direktorioan, Itzulpenak izeneko direktorio bat sortu, kotsola batetan ondorengo agindua landuko litzateke:

```
[maialen@localhost maialen]$ mkdir Itzulpenak
[maialen@localhost maialen]$
```

Berton kokatu:


```
[maialen@localhost maialen]$ cd Itzulpenak
[maialen@localhost Itzulpenak]$
```



Aurreko lauki beltzeko irudietan kotsola batetik landutako urratsak agertzen dira, Nautilus edo Konqueror bezalako edozein fitxategi kudeatzaile ere erabil daiteke.





Itzulpenak direktorioan kokatuta, jeisti den programaren jatorrizko kodea bertara higitu eta deskonprimitu:

```
[maialen@localhost Itzulpenak]$ mv ../Udaberria-src.tar.gz ./
[maialen@localhost Itzulpenak]$ tar -zxvf Udaberria-src.tar.gz
[maialen@localhost Itzulpenak]$ ls
Udaberria_src      Udaberria-src.tar.gz
[maialen@localhost Itzulpenak]$
```



Deskonprimitu ondoren, Itzulpenak direktorio barruan **Udaberria-src** direktorioa aurkituko da. **Udaberria-src** direktorioan sartu:

```
[maialen@localhost Itzulpenak]$ cd Udaberria_src
[maialen@localhost Udaberria_src]$ ls
Pixmaps  Authors      README
src      Batzuk...
po       configure
Batzuk  INSTALL
[maialen@localhost Udaberria_src]$
```




Itzultzaileek landu beharreko fitxategiak **po** direktoriopean aurkitzen dira. Bertan, hainbat hizkuntzatarra itzultitako esaldiak dituzten fitxategiak aurki daiteke. Fitxategien izena ISO baten kodeetan oinarrituta daude, esate baterako: **es** Gaztelera edo Española, **ca** Katalaniera, **it** Italiara, **fr** Frantzesara eta Euskararentzat **eu** kodeak (izenak) erabiltzen dira.

Itzulpenarekin hasi aurretik gauzatxo batzuk prestatu behar dira. Norbaitek honen zergatia galdetu dezakeenez, honi buruzko erantzuna botako da:

- Programak eduki dezakeen **eu.po** fitxategia (non euskaratutako esaldiak edukiko dituen) apurtxu bat zaharkituta egon daiteke. Programak beti garatzen joaten direnez, esaldi berriak edukiko dituzte, eta baliteke eu.po fitxategiak esaldi hauen berri ez edukitzea. Eguneraketa horiek burutzeko aurrenik jatorrizko esaldi berriak gehitu behar zaizkio.

POTFILES.in fitxategiak itzuli beharreko esaldiak dituzten jatorrizko kodedun fitxategien zerrenda dauka. Hori dela eta **POTFILES.in** fitxategia **Udaberria_src/src** direktorioan kopia behar da, eta ondoren bertan kokatu.


```
Udaberria_src/po$ cp Potfiles.in ../src/
Udaberria_src/po$ cd ../src/
Udaberria_src/src$
```



Jatorrizko kodedun fitxategietatik jatorrizko hizkuntzeko esaldiak jaso eta fitxategi berri batetan kokatu behar dira. Horretarako **GNU gettext** izeneko tresna bat erabiliko da. Oso gaineratik azalduta, **GNU²** taldeak sortutako **gettext** programa sortak jatorrizko kodedun esaldiak jaso, aurrez itzulita dauden esaldiekin bateraketa edo eguneraketa egin, eta behin esaldiak erabat itzulita daudela, **Udaberria** bezalako programek itzulitzako esaldiak erabiltzeko prestaketa edo bihurketa lana egiten du.

GNU gettext-en zeregina gaineratik ikusi ondoren, aurrez esan bezala, jatorrizko esaldiak jaso eta fitxategi batetan kokatu:

```
Udaberria_src/src$ xgettext \
    --default-domain=Udaberria \
    --add-comments --keyword=_ \
    --files-from=Potfiles.in
Udaberria_src/src$
```



- *Oharra: aurreko aginduan agertzen den "xgettext \" azken ikur hori, '\', lerro jauzi bat dagoelako idazten da. Lerro jauzirik ez balego idatzi beharrik ez litzateke egongo.*


Erabili den **xgettext³** aginduaren eraginez **Udaberria.pot** fitxategia sortu da.

² GNU taldeak software askea sortzen duen talde bat da. Bere web gunea <http://www.gnu.org> da.

³ **xgettext** agindua GNU **gettext** programa sortakoa da.


Udaberria_src/src direktorioan **Udaberria.pot** lortutakoan hau **po** direktorioan kopiatu, eta bertan kokatu:

```
Udaberria_src/src$ cp Udaberria.pot ../po/
Udaberria_src/src$ cd ../po
Udaberria_src/po$
```



kopiatu eta po direktorioan kokatu

Fitxategi honen edukina era multzokatu batetan antolatua dago. Multzoak honela zatikatzen dira:



```
#: src/buffer.C:323
msgid "Couldn't set the layout for "
msgstr ""

#: src/buffer.C:325
msgid "one paragraph"
msgstr ""

#: src/buffer.C:328
msgid " paragraphs"
msgstr ""

#. if the textclass wasn't loaded properly
#. we need to either substitute another
#. or stop loading the file.
```

Udaberria.pot fitxategia

ikurrarekin hasten diren lerroak iruzkinak edo oharrak dira. Oroar, multzoko esaldia zein fitxategitako lerrotan aurkitzen diren zehazten dute. Bestelako iruzkin motak ere eduki ditzakete.

msgid hitzarekin hasten diren lerroak jatorrizko hizkuntzako esaldiak dauzkate. Esaldiak hainbat lerrotan zatikatuak egon daiteke, geroxeago ikus ahal izango den bezala.

msgstr hitzarekin hasten direnak itzuli nahi den hizkuntzako esaldiak dauzkate. Esaldiok ere hainbat lerrotan bana daiteke.

Udaberria.pot fitxategiak, **pot** motako fitxategi guztiek bezala, itzultako esaldirik ez dute edukitzen, jatorrizko kodeetatik zuzenean jasotako esaldiak bakarrik. Hori dela eta, pot erako fitxategien msgstr zatietako komilardean ez da ezer agertzen. **pot** fitxategiak **po** fitxategien berdinak dira, baina itzuli beharreko hizkuntzako esaldirik gabe, **po** fitxategietan idazten dira itzultako esaldiak.

eu.po fitxategiak, lehenago edo beranduago sortua izango dena, Udaberria programaren euskaratutako esaldiak edukiko ditu **msgstr** sailean.

po direktorioan kokatuakoa, bertan **eu.po** izeneko fitxategia al dagoen begiratu behar da. Bi egoera ezberdin egon daiteke: eu.po

```
#: src/buffer.C:323
msgid "Couldn't set the layout for "
msgstr "Aurkezpena honentzako ezin ezarri "
```

```
#: src/buffer.C:325
msgid "one paragraph"
msgstr "parrafo bat"
```

```
#: src/buffer.C:328
msgid " paragraphs"
msgstr "parrafoak"
```

```
#. if the textclass wasn't loaded properly
#. we need to either substitute another
#. or stop loading the file.
#. I can substitute but I don't see how I can
```

eu.po fitxategia


egotea edo ez, eta ondorioz bide bat edo bestea jorratu beharko da.

eu.po fitxategirik ez dago

Direktorio orretan **eu.po** fitxategirik ez aurkituz gero **Udaberria.pot** fitxategia **eu.pox**-n kopiatu behar da.

```
Udaberria_src/po$ cp Udaberria.pot eu.pox
Udaberria_src/po$
```

pox erako fitxategiak itzulpen lanak dirauen bitartean erabiltzen dira, aldibateko fitxategiak dira. Itzulketa lanak amaitutakoan eu.po bezala kopiatuta izango bait da. Nahi izanez gero, hasieratik **eu.po** izenarekin kopiatu daiteke, baina egokiagoa izan ohi da **eu.pox** bezala uztea.




eu.po fitxategia badago

Direktorioan **eu.po** fitxategia aurkitzen bada aurrez **Udaberria** programaren esaldietariko batzuk euskaratuak izan direla esanahi du. Orain, programaren azken bertsioiko esaldiekin eguneratu beharko da. Hots, **Udaberria** bere azken bertsioan jatorrizko esaldi gehiago eduki ditzake, edo beste zenbait esaldi ezabatuak eduki eta haiei dagokien euskaratutakoak zaharkituak egon. Eguneraketa egiterakoan euskaratutako esaldi batzuk zaharkituak bezala ezarriko dira, eta jatorrizko esaldi berriak gehituko dira.

Eguneraketa hau egiteko **GNU gettext**-eko tresna bat erabiliko da: **msgmerge**. Eguneraketa egiterakoan, emaitza **eu.pox** izeneko fitxategian gordeko dira. Itzulpen lanak **eu.pox** fitxategipean landuko dira.

```
Udaberria_src/po$ msgmerge eu.po \
                    Udaberria.pot -o eu.pox
Udaberria_src/po$ ls
ca.po      eu.po      POTFILES.in
es.po      eu.pox     Udaberria.pot
it.po
Udaberria_src/po$
```



Zein argitatzailerekin itzuli

Orain **eu.pox** fitxategian egingo dira itzulpen lanak. Horretarako nahi den testu argitzaile (editatzaile) erabil daiteke: Emacs, Vi, Gvim, Gedit, nano, pico ; Edo bestela itzulpenarako prestatuta dauden tresnetariko bat: Gtranslator edo KBabel.

Proiektu hau **KBabel** tresnari buruzkoa denez, honen ezaugarriak azalduko dira tutoretza honetan.




KBabel itzulpengintzarako tresnaren ezaugarriak eta nola erabiltzen den geroxeago azalduko da. Oraingoz **po** fitxategien itzulpenen urratsekin jarraituko da.

Beraz, behin **eu.pox** fitxategia erabat itzulita dagoenean (esan bezala, geroxeago azalduko da nola itzuli **KBabel**-ekin) **Udaberria** programak itzulitzakoa erabil dezan urrats batzuek landu behar dira.

Direktorioan dagoen **eu.po** fitxategia **eu.po.zaharra** izenekora bihurtuko da, babeseko kopia bat, (irudiko 1. urratsa). Horrela **eu.pox** fitxategia **eu.po** izango da (irudiko 2. urratsa), eta noiz bait anka sartzerik egiten bada, eu-ren oinarria **eu.po.zaharra** izango da:

```
Udaberria_src/po$ mv eu.po eu.po.zaharra
Udaberria_src/po$ cp eu.pox eu.po
Udaberria_src/po$
```




po kode bitarrean (mo)

Udaberria programak itzulitako esaldiak erabil ditzan, **eu.po** fitxategia, testu erakoa, fitxategi berezi batetan bihurtu behar da, bitar kodeduna. **Udaberria** abiatzen ari dela bihurtu berri den fitxategi hori esaldiak erabiltzaileari aurkezteko erabiliko baitu.

```
Udaberria_src/po$ msgfmt -c --strict \  
--statistics eu.po  
Udaberria_src/po$
```

Aurreko agindu horrek, **GNU gettext**-eko tresna den **msgfmt**-ek, akatsik ez aurkitzean **messages.mo** izeneko fitxategi bat sortuko luke. Fitxategi honek aurrez **eu.po** fitxategian dauden itzulitako esaldiak dauzka, baina testu laua eran eduki beharrean bitar kode eran dauzka.




Hizkuntza bat erabiltzeko programek direktorio batzuetatik esaldien irakurketa lantzen dute. Direktorioak **/usr/share/locale** direktorioan aurkitzen dira, eta hizkuntzen arabera sailkatzen dira: Katalan hizkuntzarentzako **ca** barruko **LC_MESSAGES** -en aurkitzen dira programentzako mezuak; Gaztelarentzako **es/LC_MESSAGES**-pean; Euskararentzako berriz **eu/LC_MESSAGES**-en aurkitzen dira.

Adibidez, **gedit** programa abiatzen ari dela, euskarazko mezuak kaleratu behar baditu **eu/LC_MESSAGES** direktorioko **gedit.mo** fitxategitik irakurriko ditu mezu edo esaldiak.

Beraz, **Udaberria** programak bere mezuak euskara hizkuntzean kaleratu ditzan, **messages.mo** fitxategia **eu/LC_MESSAGES** direktorioan **Udaberria.mo** bezala kopiatu beharko du supererabiltzaileak⁴.

```
Udaberria_src/po$ su  
Password:  
Udaberria_src/po# cp messages.mo \  
/usr/share/locale/eu/LC_MESSAGES/Udaberria.mo  
Udaberria_src/po# exit  
Udaberria_src/po$
```



4 Erabiltzaile arrunt batek direktorio horietan idazteko baimenik ez du izaten, eta beraz supererabiltzaileak soilik egin

Itzulpen Memoriak

Itzulpen lanetan aritzen den edonork jakingo du zer diren Itzulpen Memoriak, eta ez badaki hobe zer diren eta nola erabiltzen diren ikastea ;)

Itzulpen Memoriak, aurrez beste programa bat hizkuntza batetara itzultzerakoan sortzen diren jatorrizko eta itzulitako esaldien multzoak dira. Programa horren jatorrizko hizkuntza Inglesa dela irudikatu. Beraz, ingleseko esaldi bakoitzak, gutxigorabehera, bere euskarazko esaldia edukiko luke, multzo bat osatuz. Itzultzaile batek burutiriko itzulpena dagokion itzulpen enpresari diola suposatu: programaren euskaratutako esaldia, alegia. Jatorrizko eta itzulitako esaldi multzoek Itzulpen Memoria osatzen dute, eta enpresak daukan Itzulpen Memoria itzultzaileak bidalitakoarekin eguneratzen du.

Itzultzaile honek, bere oporren ondoren, beste programa bat euskaratzen hasten denean, hutsetik hasi beharrean aurrez itzulitako esaldiak (Itzulpen Memoriak) ahalik eta gehien erabiltzen saiatzen da, eta horrela lana aurreztuz gain, itzulketa bateratu bat egiteko gai da. Bestalde, Itzulpen Memoria itzultzaileen artean banatzerakoan, itzultzaile batek une batetan jatorrizko esaldi bat egokiago nola itzul daiteken jakiteko erabil dezake.

GNU/Linux sistemako Itzulpen Memoriak hainbat po fitxategi osatzen dute. Horregatik, KBabel erabili aurretik hauek eskuratzea komeni da.


po fitxategi bakoitza banan-bana Internet-etik jeisten ibili beharrean

egokiagoa da **po** fitxategi sortak dituen konprimitutako fitxategi bat jeistea⁵ (irudian **PoFitxategiak.tar.gz** izenarekin agertzen da).



PoFitxategiak.tar.gz erabiltzailearen **Jeitsitakoak** direktoriopera jeitsi bada, hau **ItzulpenMemoriak** direktorioan kopiatu eta deskonprimitzea komenigarria da. Honela, lortzen joaten den itzulpen memorien fitxategi guztiak **ItzulpenMemoriak** bezalako direktorio bakar batetan antolatuta egongo baitira.

```
Itzulpenak$ mkdir ItzulpenMemoriak
Itzulpenak$ cp ../Jeitsitakoak/PoFitxategiak.tar.gz
                ItzulpenMemoriak/
Itzulpenak$
```



ditzake horrelako lanak.

5 **Euskalgnu** elkartearen www.euskalgnu.org/azpihtmlleu/proiektuak/po.tgz helbidean aurki daiteke.


PoFitxategiak.tar.gz fitxategia **ItzulpenMemoria** direktorioan kopiatu ondoren deskonprimitu egin behar da:

```
Itzulpenak$ tar -zxvf PoFitxategiak.tar.gz
gedit
kwriter
(...)
Itzulpenak$
```

Hau deskonprimitu ondoren **KBabel** tresna erabiltzeari ekingo zaio.

KBabel erabiltzeko Itzulpen Memoriak edukitzea ez da beharrezkoa, baina bai komenigarria. Erabitzailak (itzultzaileak) erabakiko du Itzulpen Memoriak eduki edo ez.


Gerta daiteke baita ere Itzulpen Memoririk gabe **KBabel** erabiltzen hastea, eta zenbait egun, aste edo hilabete beranduago Itzulpen Memoriak ezartzea. Egoera horretan, geroxeago ikus ahal izango den bezala, **KBabel** egokitu eta hauek erabiltzeko gaitasuna izango du.



KBabel erabiltzen

KBabel-en sarrerako egokitaketak

Erabiltzaile bate lehen aldiz KBabel programa abiarazten duenean ondorengo irudietako leihoak aurkeztuko zaizkio. Leiho hauek erabiltzaileak bere hobespenak egokitzeko dira.




'Identitatea' atalean, itzulpen lana egin behar duenaren izen-abizenak, bere posta elektronikoaren helbidea eta itzulpen taldearen posta zerrendagatik galdetzen du.

Izena:	Maialen Azkue Larrañaga		
Aurkitutako izena:			
Posta elektronikoa:	maialen@zundan.com		
Hizkuntzaren izen osoa:	basque	Hizkuntzaren kodea:	eu
Hizkuntzaren posta-zerrenda:	itzulpena@euskalgnu.org		
Ordu-zona:	GMT		

Hor idazten diren erabiltzailearen datuak po fitxategien barruan sartua izango da, horrela itzulpen lanak nork egin duen jakin daiteke, eta bere lan onagatik zoriondu!


'Editatu' aukeran po fitxategiak argitaratzeko ezaugarri batzuk zehaz daitekeen arren ezarrita dauden jatorrizkoekin jarraitzea nahikoa izan ohi da.




'Gorde' aukerako ezaugarriak oroar ongi egon ohi dira. Hori bai, Euskara hizkuntzarentzako 'kodeketa' ("encoding") atalean **UTF-8** erakoa izan behar du.




'Ortografia' atalean zein hiztegi edo zuzentzaile erabiliko den zehazten da. Gaur egun ordea GNU/Linux-entzako zuzentzaile ortografikorik ez dagoenez, leiho hau alde batetara uzten da.



'Bilatu' arloan zein lekuan egin behar duen bilaketa zehazten da. Oraingoz dagoen bezala utzi. Geroago azalduko da nola zehazten den, bai?




Kbabel 0.95 bertsioan “Katalogo-kudeatzailea” aukera agertzen zen arren, 1.1 bertsioan ez da Kbabel barruan ageri. Hau ezartzeko bai Kbabel-etik deituz bai zuzenean “catalogmanager” (katalogo-kudeatzailea benetazko izena) abiatu dezakezu. Ondoren, “Katalogo-kudeatzailea” programako “Konfigurazioa -> Katalogo-kudeatzailearen hobespenak” menu eta aukera hautatuz egokitu ahal izango duzu.



Hobespen honetan Itzulpen Memoriak osatzen duten **po** fitxategiak zein direktorioean aurkitzen diren zehazten da.


Adibidearekin jarraituz, **po** fitxategiak **ItzulpenMemoriak** direktorioan aurkitzen direnez sistemako errotik hasi (/) eta ibilbide osoa idazten da, irudian ikus daiteken bezala.



Kbabel-ek beste zenbait hobespeneko aukerak eskeintzen ditu, baina tutoretza hau gehiegi ez luzatzeagatik ez dira aipatuak izango.


KBabel-en menuak

KBabel-en hasierako ezaugarriak ezarri edo egokitu ondoren programa nagusia plazaratzen da.




eu.pox bezalako fitxategia irekitzeko 'ireki' botoia zaztatu. Udaberria_src/po direktorioan kokatu eta bertatik eu.pox hautatu. Hasieran eu.pox ez da agertuko, baina nahikoa da "Iragazkia"-n *.pox idaztea. Hurrengo orrialdean agertzen zaizu fitxategia haukeratzeko erabiltzen den leihoa.

*Aholkua: **eu.pox** erabili beharrean zuzenean **eu.po** lantzea nahi bada, komenigarria litzateke **eu.po**-ren kopia bat egitea, adibidez **eu.po.old** bezala. Erabiltzaile bakoitzak bere burua antolatzen ikasi beharko luke.*




Direktorioko fitxategi bat hautatzerakoan (aurreko irudian **eu.po**) itzulita, itzuligabe eta zalantzazko zenbat esaldi dauden zehazten duen grafiko bat azaltzen da. Borobil horren orlegi zatiak itzultako kopurua, gorriak itzuligabekoak eta urdinak zalantzazko esaldiak adierazten dute.




KBabel programaren leihoak, **po** fitxategien bezala, hiru zati nagusi ditu:


1. Esaldia zein jatorrizko kdoeko fitxategiko lerrotan agertzen den iruzkina (edo 'oharra') eduki ohi du. Gogoratu bestelako iruzkinak ere eduki ditzakela. Txoko honetan itzultzaileak bere iruzkinak ere idatz ditzake. Hori bai, derrigorrez lerro bakoitzaren hasieran # ikurra idatzi beharko du. Bestela akats bat sortuko bait luke.



2. Jatorriko hizkuntzan idatzitako esaldia azaltzen duen leihotxo. Lauki horretan agertzen den esaldia irakurtetakoa da, eta bertan ezin da ezer idatzi.



3. Itzulketa egiteko leihotxo. Jatorrizko esaldia txoko honetan itzultzen denez hemen itzultzaileak idazteko aukera dauka. Bestela nola egin itzulpen lanak, ezta?



```
#: src/buffer.C:323
msgid "Couldn't set the layout for "
msgstr "Aurkezpena honentzako ezin ezarri "

#: src/buffer.C:325
msgid "one paragraph"
msgstr "parrafo bat"


#: src/buffer.C:328
msgid "paragraphs"
msgstr "parrafoak"

#. if the textclass wasn't loaded properly
#. we need to either substitute another
#. or stop loading the file.
#. I can substitute but I don't see how I can
```

eu.po fitxategia

eu.po fitxategiari berriro begiratzen bazaio, antzeman daiteke, aurrez esan bezala, **KBabel** programaren zati nagusiak eta fitxategiarenak oso era berdintsu batetan antolatua daudela.

Orain datorren irudia **KBabel**-en leiho nagusia da, eta aurrez azaldutako hiru zati edo txoko nagusiak non kokatzen diren ikus daiteke.



Fitxategia Editatu Joan Hiztegiak Liburu Markak Tresnak Konfigurazioa Laguntza

KBabel-en menu nagusia da, eta bertotik beste azpimenu guztiak zabaltzen dira:




aldaketa guztiak galtzen dira.


Fitxategia menuko aukera garrantzitsuenak:

- **Ireki...** po fitxategi bat ireki.
- **Azkena ireki** aurrez lantzen ihardun den fitxategi bat ireki. Aurrez landutako en zerrrenda bat erakusten du.
- **Gorde** itzultzen ari den po fitxategia gorde.
- **Gorde honela...** itzultzen ari den po fitxategia beste izen batekin gorde.
- **Itzuli** itzultzen ari den po fitxategiaren azken gordeketako berreskuratu, eta orain dagoenaren


Editatu menuan agertzen diren agindu batzuk hauek dira:
Azken aginduaren eragina desegin du.




Desegin den azken eragina berrerragiten du.



Esaldi edo hautatutakoa moztu edo ebakitzen du, eta memorian kopiatuta gelditzen da.



Hautatutako testu zatia memorian kopiatzen du.



Memorian kopiatuta dagoena itsasten du.

Dena Hautatu Testu guztia hautatzen du.

Aurkitu... **po** fitxategian zehaztutako hitza bilatzen du.

Aurkitu Hurrengoa **po** fitxategiko bilaketan aurkitutako hurrengo agerraldira joaten da.


Ordeztu **po** fitxategian aurkitutako hitza zehaztutako beste bategatik ordezkutzen du.

Kopiatu Msgid Msgstr-era Jatorrizko hizkuntzako esaldia itzulpeneko esaldian kopiatzen du.
















Kopiatu Bilaketaren Emaiza Msgstr-era Itzulpen Memorian egin den bilaketaren aurkikuntza itzulpeneko beharreko esaldian ordezkutzen du.




Gaineko irudian (tresnabarra) ikus daitekeenez, **Editatu** menuko zenbait agindu ere agertzen dira.




Joan menupean agertzen diren aginduak **po** fitxategietako esaldietan gora eta behera higitzeko erabiltzen dira.


 Aurrekoa	OrriaGo
 Hurrengoa	OrriaBe
 Joan...	Ctrl+G
 Lehenengo sarrera	Alt+Ctrl+Etxea
 Azkenen sarrera	Alt+Ctrl+Bukaera
 Aurreko Zalantzazkoa edo Itzuli Gabea	Ctrl+Shift+OrriaGo
 Hurrengo Zalantzazkoa edo Itzuli Gabea	Ctrl+Shift+OrriaBe
 Aurreko Zalantzazkoa	Ctrl+OrriaGo
 Hurrengo Zalantzazkoa	Ctrl+OrriaBe
 Aurreko Itzuli Gabea	Alt+OrriaGo
 Hurrengo Itzuli Gabea	Alt+OrriaBe
 Aurreko Errorea	Shift+OrriaGo
 Hurrengo Errorea	Shift+OrriaBe
 Atzera	Alt+Ezkerrera
 Aurrera	Alt+Eskuinera

 Aurrekoa

Aurreko esaldira joaten da.


 Hurrengoa


Ondorengo esaldira joaten da.


 Joan...

po fitxategiko zehazten den esaldira (zenbatgarrena) joaten da.

 Lehenengo sarrera **po** fitxategiko lehen esaldira (sarrera) jauzitzen da.

 Azkenen sarrera **po** fitxategiko azken esaldi edo sarrerararaino doa.

 Aurreko Zalantzazkoa edo Itzuli Gabea Aurreko itzuligabeko edo zalantzazko esaldira jauzi.

 Hurrengo Zalantzazkoa edo Itzuli Gabea Ondorengo itzuligabeko edo zalantzazko esaldira jauzi.

 Aurreko Zalantzazkoa Aurreko zalantzazko esaldira jauzi.


 Hurrengo Zalantzazkoa Ondorengo zalantzazko esaldira jauzi.

 Aurreko Itzuli Gabea Aurreko itzuligabeko esaldira jauzi.

 Hurrengo Itzuli Gabea Ondorengo itzuligabeko esaldira jauzi.



 Aurreko Errorea Aurreko akastun esaldira joan.

 Hurrengo Errorea Ondorengo akastun esaldira joan.


 Lehenengo sarrera Landu den aurreko esaldira joan.

 Azkenen sarrera Landu den ondorengo esaldira joan.


Joan menuko agindu gehienak arakatze barran agertzen dira.



Bilatu Testua azpimenuak jatorrizko esaldia aurkitzen saiatzen da. Tresna hau jatorrizko esaldiaren esanahia garbi ez dagoenean esaldi osoaren bilaketa lantzen du.



Bilatu aukeratutako testua-k berriz hautatutako testua aurkitzen saiatzen da.



Bilaketa hiru leku edo fitxategietan lantzen da:

- **Translation Database.** Erabiltzaileak Internetetik jeitsitako **po** fitxategiez osatutako datubasea da.
- **PO lagungarria.** Euskarara itzultzen ari den programaren, **Udaberria** adibidez, beste hizkuntza batetara itzultitako **po** fitxategia da. Horrela, bi fitxategiok jatorrizko esaldi berdin-berdinak dauzkate. eta beste hizkuntzakoa (Catalaniera adbz.) erabat osatuta balego, esaldi baten esanahia hobekiago ulertzeko erabiltzen da. Hots, esaldiaren kontestua egokiago aurkitzeko da.
- **PO Bilduma.** Era honetako fitxategi batek hizkuntza bakarreko hainbat **po** fitxategien jatorrizko eta itzultitako esaldiak dauzka, baina ez dauka inolako iruzkinik, ezta ere esaldi bakoitza zein programari dagokion ere.
- **TMX Bilduma.** Badirudi itzulpengintzan erabiltzen den TMX egiturako datubesearekin ere lan egiteko gai dela.


Bilaketaren emaitzean aurkitutakoak 'Bilatu' izeneko mihipean dagoen leihotxoan zerrendatuta azaltzen ditu.

Zerrendatuen artean gora eta behera higitzeko bai tekaltuko geziekin bai '<Aurrekoa' eta 'Hurrengoa' botoiekin egiten da.

Puntuazioa	Jatorrizkoa	Itzulpena
100	Path Patterns	Bide-ereduak
48	shell &Patterns	shell &ereduak
48	Filename Patterns	Fitxategiizena Patroiak

< Aurrekoa Hurrengoa >


Bilatu PO Testuingurua Iturburua Etiketak



Tresnak izeneko menuan ondorengo aukerak aurkitu ditzakegu:




Ortografia-ko aukerak zuzentzaile ortografiko batetan oinarritutako po fitxategiaren azterketa egiten du. Tamalez tutoretza hau idaztean **GNU/Linux** sistema eragilerako Euskarazko zuzentzaile ortografikorik ez dago.




Balidazioa-k **po** fitxategiaren sintaxia begiratzeko du. Horretarako iradokizun, msgstr eta msgid-ren oinarritzko sintaxia ongi al dagoen begiratzeko du.

Balidazioa azpimenuko aukera interesgarrienetakoa 'Egiaztatu Argumentuak' da, horrekin jatorrizko esaldia eta itzulitakoak egitura berdina al duen aztertzen du. Hots, jatorrizko esaldiak "Configure %s file" izanez gero baina itzulitakoan "Konfiguratu fitxategia" egonez oker bat egon dela eta hau zuzentzeko aholkatuko luke.



Egiaztatu <u>G</u> uztia	Ctrl+E
Egiaztatu <u>S</u> intaxia	Ctrl+T
Egiaztatu <u>A</u> rgumentuak	Ctrl+D
Egiaztatu <u>A</u> zaleratzaileak	Ctrl+H
<u>B</u> ilatu Itzulitako Testuinguruaren Informazioa	Ctrl+L
Egiaztatu pluraleko formak (KDE bakarrik)	
Egiaztatu <u>E</u> kuazioak	Ctrl+J
Egiaztatu <u>E</u> tiketak	



Parekatu aukerak bi fitxategien arteko ezberdintasunak plazaratzen ditu.




Itzulpen zirriborroa-k berriz **po** fitxategiaren itzulpen takar bat egiten du. Horrela nahiz eta ahal duen itzulpen egokiena bere kasa egin, itzulpen mota hau landutakoan itzultzaileak esaldiak banan-bana begiztatu eta behar direnetan zuzendu beharko lituzke.




Hautatutako direktorioetan dauden **po** fitxategi ezberdinen azterketa egin eta berauei buruzko estatistikak sortzen ditu.

Fitxategi bakoitzean zenbat esaldi itzulita, zalantzan eta itzuligabekoak dauden argituz. Azken aldiz **po** fitxategien azken berrikustaldia noiz izan den eta azken itzultzailea nor izan den zehazten du baita ere.



Estatistikaken leihoa agertu dadin **Estatistikak** botoia zaztatzearekin nahikoa da.

Kbabel 1.1 bertsioan, edo garatuagoetan, Katalogo-kudeatzailea aparteko programa bat da: **catalogmanager** izenekoa. Beraz, nahi izanez gero, zuzenean Katalogo-kudeatzailea erabil ahal daiteke.



Konfigurazioa menuko lehen aukera taldeak **KBabeleko** zenbait zati bistaraten edo ezkutatzen ditu. Aukera hauetariko bakoitza piztuta edo hautatua egonez gero ikusgai izango dira.


'Tresnabarra Erakutsi'-ek azpiko tresna barra hau bistaratu edo ezkutatzen du.




'Egoerabarra Erakutsi'-k KBabel programaren azpikaldean dagoen po fitxategiaren egoera azaltzen duen barrarengain eragiten du.



'Erakutsi Nabigazio-Barrar' po fitxategiko mezuetan gora eta behera ibiltzeko erabiltzen barraren ardura dauka.



'Erakutsi Oharrak'-ek berriz po fitxategiko esaldi edo mezu bakoitzari dagokion iruzkinen (oharren) leihotxo ikusgai edo ikuskoitz jarten du.



'Erakutsi Tresnak'-ek berriz bilaketa eta kontestuari dagozkien mihidun leihotxoaz arduratzen da.


Puntuazioa	Jatorrizkoa	Itzulpena
100	Path Patterns	Bide-ereduak
48	shell &Patterns	shell &ereduak
48	Filename Patterns	Fitxategiizena Patroiak

< Aurrekoa Hurrengoa >


Bilatu PO Testuingurua Iturburua Etiketak


Beste taldean **KBabel** programaren egokitzaketan aukerak agertzen dira. Horiek

beranduxeago erakutsiko dira.




Laguntza menuko **Kbabel Eskuliburua**-k KDE-ren laguntza gunea zabaltzen du. Bertan bai **KDE** bai **KBabel** laguntzako eskuliburua irakur daiteke.



 Zer da hau?

Hau xaguaren gezia hautatuz **KBabel**-eko elementu baten gainean


zaztatzearekin bat buruzko azalpen daukan leihotxo bistaratzen da.



berorri ttipi bat orixka bat


Gettext informazioa

Lehenago azaldu den GNU gettext tresnari buruzko eskuliburua azaltzen du.




Okerra Jakinarazi...

KBabel programan akats edo okerren bat gertatuz gero, gertatutako okerrari buruzko mezu bat bidaltzea komenigarria izan ohi da. Horrela programa honen garatzaileek akats honen berri jakiterakoan ahalik eta azkarren zuzendu dezatekete.



KBabel-ri Buruz

Aukera honek programa zenbatgarren bertsioa den argitzeaz gain proiektuan garatzen diarduten egileen izen eta helbide elektronikoak eta programa zein baimenpean zabaltzen den ere aurkezten ditu.



KBabel-ekin lanean

KBabel-en menuak ikusi ondoren nola erabiltzen den azalduko da. Mezuen egoera zein izan daitekeen gogoratu:

- **Zalantzazkoa.** Mezuaren itzulpena ez bada erabat egokia edo zalantzazkoa bada, 'fuzzy' ere deitzen zaio, eta irudian agertzen den argi gorriak mezua egoera horretan aurkitzen dela zehazten du. Gainera, iruzkinen txokoa **#, fuzzy** esaldia agertzen da.




- **Itzuli gabea.** Mezua itzuli gabe dagoen egoera da eta dagokion, ikus azpiko irudia, argia gorritzten du. Mezu horretan itzultzen hasi orduko argi gorritxoa itzali egiten da.



- **Akastuna.** Mezua itzultzerakoan jatorrizkoaren egitura jarraitu behar du, bestela mezu horrek akats bat daukala zehazten du. Irudian agertzen okerra '%'-gatik gertatzen da, itzulitakoak ez baitauka horrelakorik.




Ah! Eta noizbatean esaldia po fitxategiko zein kontestutan dagoen ikus ahal izateko 'PO Testuingurua' mihiaren txokoa erabili. Berton 'uneko sarrera' agertzen den lekuan kokatzen da itzultzen ari den esaldia.




Itzulpen Memoriak prestatzen




Kbabel 0.95 bertsioan “Kbabel Konfiguratu...” aukera erabiliz egiten zen. Baina, 1.1 bertsioan Katalogoaren kudeatzailea abiatu behar da. Katalogoaren kudeatzailea abiatzeko  Katalogo-Kudeatzailea... Kbabel-etik egin daiteke.

Horrela aurrez egokitzaketa atalean ikusi den leihora doa. Leiho honetan **po** fitxategiak zein direktorioan dauden zehazten da eta Katalogoaren arduradunak berauen estatistikak egiteko gai izango da.



Behin **po** fitxategiak dauzkan direktorioa hautatu ondoren, **OK** botoia zaztatu.




Itzulpen Memoriak erabilgarri izan daitezen prestatuko dira.

'**Konfiguratu Hiztegia**' azpimenuan Itzulpen Datubasea ('**Translation database**') aukeratu.

Itzulpen Memoriak osatzen duten datubasea eguneratzeko, edo hasieratik hasteko, hiru bide daude:

1. **Eskaneatu PO fitxategi bakar bat...('Scan single po file')**. Erabat itzulita dagoen po fitxategi baten edukina Itzulpen Memoriko datubasean sartu.
2. **Eskaneatu direktorioa...('Scan directory')**. Direktorio batetan dauden po fitxategi guztiak Itzulpen Memoriko datubaseari gehitu. Aurkeztu den adibidean ItzulpenMemoriak izeneko direktorioa hautatu beharko litzateke.




